

1-2 URTEKO HAURREN GURASOENTZAKO PROGRAMA



*ETXADI taldeak
egina
(www.etxadi.org)*

**“Jesús de
Gangoiti Barrera”
Fundazioaren
babespean**

12-18 HILABETE



MUGITZEKO GAITASUNAK



12-18 MESES

Mugitzeko gaitasunak I

- ❖ Muskulu-tonu normala.
- ❖ Sedestazio ona, oreka ona: oreka galarazten dien mugimenduen aurrean erreakzionatzeko gaitasuna, konpentsazio-mugimenduen bidez.
- ❖ Garatzen ari den neurrian, nahiago du oinez batetik bestera mugitzea katuka ibiltzea baino.



Mugitzeko gaitasunak II




- ❖ Seihilekoaren amaieran, kukubilko jartzen da (gorputza hobeto orekatzen du eta mugimenduak ondo kontrolatzen ditu).
- ❖ Zutik ondo egoten da, zailtasunik gabe, eta oreka mantentzen du.
- ❖ Oratze zehatza: eskuekin gauzak egiteko independentzia handiagoa eta portaera berrietarako aukera (marraztu, ura basotik edan, gauzak sartu,).

12-18 MESES

Mugitzeko gaitasunak III

- ❖ Eskuen koordinazio ona.
- ❖ Begi-eskuen arteko koordinazio oso ona.
- ❖ Eskumuturren artikulazio ona.



ESTIMULAZIO-JARDUERA



12-18 MESES

Mugitzeko gaitasunak bizkortzeko jarduerak I

- ✓ Besapeetatik heldu eta herrestan eramaten jolastu.
- ✓ Aulki batean eseri, lurrera iristen ez dela, eta, eskuak eskainiz, lurrera jaistera animatu (bazkaltzeko orduan).
- ✓ Belauneko dagoela, postura horretan unetxo batez jolastu.
- ✓ Katuka ibiltzen jolastu, katuka eskailerak igo.



Mugitzeko gaitasunak bizkortzeko jarduerak II



- ✓ Aulkiak edo beste objektu batzuk jarri tunel moduan, eta katuka igaro (dibertitzeko uneak).
- ✓ Atzeraka ibili, lasterketak egin, igotzen eta jaisten ibili eskuak emanda (dibertitzeko uneak).
- ✓ Ate bati heltzen dionean, atea poliki-poliki itxi eta ireki, aurrera eta atzera mugi dadin (dibertitzeko uneak).

Mugitzeko gaitasunak bizkortzeko jarduerak III

- ✓ **Objektuak botatzen, pilota botatzen jolastu.**
- ✓ **Gauzak, ipuinak kontatu, abestiak kantatu.**
- ✓ **Uztaiak makila batean sartzeko jokoak eskaini.**



GAITASUN KOGNITIBO- LINGUISTIKOAK



12-18 MESES

Gaitasun kognitibo-linguistikoak I

- ♦ Gauzak esploratzeko modu berriak bilatuko ditu, batetik bestera ibiltzeko duen aukerari esker.
- ♦ Espazio handiak behar ditu bere eran ibiltzeko.
- ♦ Haurrari berarekin jolastea gustatzen zaio eta gauza berriak jolas berriak erakustea.



Gaitasun kognitibo-linguistikoak II



- ❖ Besteekin komunikatzeko gaitasuna hartuko du eta pixkanaka gero eta gehiago komunikatuko da.
- ❖ 2-10 hitz esateko gaitasuna izango du.
- ❖ Nahiko ondo ulertuko ditu gauzak.
- ❖ Soinuak imitatzea gustatzen zaio, eta nahiko ondo imitatuko ditu.

12-18 MESES

ESTIMULAZIO-JARDUERA



12-18 MESES

Gaitasun kognitibo-linguistikoak bizkortzeko jarduerak I

- ✓ Kuboak dituen kaxa eskaini eta ilarak egiten jolastu, trena balitz bezala. Kuboak aurrean edo atzean jartzeko esan (dibertitzeko uneak edo bainu ondorengoak).
- ✓ Kuboekin dorreak egiten erakutsi eta gero botatzen utzi.
- ✓ Kolore zehatz bateko kuboak edo txartelak emateko eskatu; asmatzen duenean poza erakutsi eta asmatzen ez duenean ez duela asmatu esan.



GAITASUN SOZIO- EMOZIONALAK



12-18 MESES

Gaitasun sozio-emozionalak

- ❖ Autonomia sozialean, gauza batzuk lortzen hasiko da dituen aukera eragileei esker (bakarrik edaten, arropak kentzen, jaten).
- ❖ Besteekin erlazionatzea gustatzen zaio.
- ❖ Ez ditu esfinterrak kontrolatuko; egindakoan ohartuko da, eta orduan abisatuko du.



ESTIMULAZIO-JARDUERA



12-18 MESES

Gaitasun sozio-emozionalak bizkortzeko jarduerak I



- ✓ Objektuak seinalatu: jostailuen izenak esan haurrak seinala ditzan.
- ✓ Bere gorputzaren inguruko informazioa ulertu: galdetu non dituen begiak, ahoa, belarriak, e.a., seinalatzearen (bainatzerakoan edo ohera joandakoan).
- ✓ Jostailuak eman eta kendu, haserrea erakus dezan, berriro eman, e.a. (dibertitzeko uneak).

Gaitasun sozio-emozionalak bizkortzeko jarduerak II

- ✓ Janzten erakutsi.
- ✓ Galtzerdiak jantzi eta puntatik tira egin, kentzeko zer-nolako mugimendua egin behar duen erakusteko.
- ✓ Galtzak edo jertsea janzterakoan, zuloa erakutsi, besoak edo hankak luzatu eta han sar ditzan.



Gaitasun sozio-emozionalak bizkortzeko jarduerak III



- ✓ Hortzak garbitzen erakusten hasi; erakutsi nola egiten dugun eskuilarekin eta atzamarrarekin.
- ✓ Pixontzian edo komunean jartzen jarraitu, han pixa edo kaka egin dezakeela esan.
- ✓ Egunero jarri, ohitura hartu eta zertarako den jakin dezan, ezer egiten ez badu ere.

18-24 HILABETE



MUGITZEKO GAITASUNAK



18-24 MESES

Mugitzeko gaitasunak I

- ❖ Zutik: postura horretan ondo dago eta orekari eusten dio.
- ❖ Pikotxean jartzen da objektuak lurretik hartzeko; hasieran eroriko da, baina, azkenean, oreka mantenduko du postura horretan.
- ❖ Oreka: egonkorra izango da, baina korri egiten duenean edo biratu nahi duenean, galduko du.



Mugitzeko gaitasunak II

- ❖ Gauzak hartzeko trebetasuna izango du.
- ❖ Eskuak ondo koordinatuko ditu.
- ❖ Hatz erakuslearekin gauzak seinalatzea gustatzen zaio, eta bere hatzekin objektuak banaka esploratuko ditu.
- ❖ Manipulazio finak egingo ditu.



ESTIMULAZIO-JARDUERA



18-24 MESES

Mugitzeko gaitasunak bizkortzeko jarduerak I

- ✓ Jostailu bat zintzilikatu aulkiaren bizkarraldean nola igotzen den ikusteko (begira egonda).
- ✓ Parean dauden gauzak saltatzen ibili, baloiari ostikoa ematen,...
- ✓ Aulki batean eseri, eta, eskuetatik heldu ondoren, esan altxatzeko, berriro esertzeko, e.a. (Bazkaldu ondoren).



Mugitzeko gaitasunak bizkortzeko jarduerak II

- ✓ Eskutik helduta ibili eta jostailuak lurrera bota, makurtzen laguntzeko eskua askatu gabe (dibertitzeko uneak).
- ✓ Lurrean etzan jolasteko, biraka edo lau hankan ibiltzeko.
- ✓ Lurrean etzan eta ez mugitzeko esan; 3 kontatu eta altxa daitekeela esan (erlaxatzen laguntzen du).



GAITASUN KOGNITIBO- LINGUISTIKOAK



18-24 MESES

Gaitasun kognitibo-linguistikoak I

- ❖ Eskuekin gauzak egitea gero eta garrantzitsuagoa da; ahoa gutxiago erabiliko dute, hau da, gutxiago txupatu, kosk egin,...
- ❖ Eskuekin egiteko jolasak gustatzen zaizkio; horiek gero eta gehiago menperatuko ditu.
- ❖ Haurrak ingurukoa zer den eta nola izena duen jakin nahi du.



Gaitasun kognitibo-linguistikoak II



- ❖ Ingurukoen antzera gauzak artikulatzen ahaleginduko da.
- ❖ 20-30 hitz menderatuko ditu, eta binaka erabiliko ditu, loturarik gabe, zer nahi duen adierazteko.
- ❖ Ezezkoa erabiliko du bere buruarekin gehiago konbentzitura. Soinuak edo esaldiak errepikatuko ditu besteak imitatzeko eta komunikatzeko baliorik gabe (ekolalia).

ESTIMULAZIO-JARDUERA



18-24 MESES

Gaitasun kognitibo-linguistikoak bizkortzeko jarduerak I

- ✓ Behatze-ariketak.
- ✓ Arreta-ariketak.
- ✓ Memoria-ariketak.
- ✓ Dorreak eraiki; konparaketak egin: pisua eta arina, betea eta hutsa, luzea eta motza; ehundurak, koloreak ezberdindu; buru-hausgarriak egin; denbora-kontzeptuak landu; kontatzen jolastu, jostailuak gordetzen eta bilatzen jolastu. Jolas sinbolikoak.



Gaitasun kognitibo-linguistikoak bizkortzeko jarduerak II



- ✓ Aurpegia eta mihia erabiltzeko ariketak.
- ✓ Ura izena esan, edateko emandakoan, iturria irekitzerakoan, bainatzerakoan,...
- ✓ Jostailuen izenak esaten jolastu.

Gaitasun kognitibo-linguistikoak bizkortzeko jarduerak III

- ✓ Hitzak amaitzen jolastu.
- ✓ Bai eta ez esaten erakutsi.
- ✓ Ipuinak kontatu.
- ✓ Eguneko ekintzarik garrantzitsuenak aipatu.



GAITASUN SOZIO- EMOZIONALAK



18-24 MESES

Gaitasun sozio-emozionalak

- ❖ Emozioak gorputzarekin adieraziko ditu, gorputzeko baliabideak gero eta gehiago erabiliko ditu.
- ❖ Helduek proposatutako lanetan parte hartzea gustatzen zaio eta bere kidekoekin harremana izatea.
- ❖ Janzteia atsegina du, nahiz eta helduen laguntza behar izan.



ESTIMULAZIO-JARDUERA



18-24 MESES

Gaitasun sozio-emozionalak bizkortzeko jarduerak I

- ✓ Jendea agurtzeko ariketak egin. (paseatzerakoan).
- ✓ Jostailuak jasotzen erakutsi.
- ✓ Jostailuak non jarrita dauden erakutsi eta leku horretan gorde, jasotzerakoan.
- ✓ Norbaitek zerbait eman eta hartzen badu, “eskerrik asko” esaten erakutsi.



Gaitasun sozio-emozionalak bizkortzeko jarduerak II



- ✓ Erakutsi gauza batzuk egin ditzakeela baina beste batzuk ez, errietary egin gabe.
- ✓ Eseri hondarrarekin edo urarekin eta pixontziarekin jolasteko eta honela esan: “begira, kaka/pixa egiten duzunean bezala”.
- ✓ Panpinekin jolastu, eta panpinei ipurdia garbitu pixa edo kaka egin dutelako.
- ✓ Haurak pixa edo kaka egindakoa, aldatzen laguntzeko esan (haur-oihalak, paper-zapiak, ... bila ditzala).

Gaitasun sozio-emozionalak bizkortzeko jarduerak III

- ✓ Ondo irudituz gero, haur-oihalararekin edo oihalik gabe ibili, noiz bustitzen den kontura dadin.
- ✓ Panpinak pixontzian jartzen jolastu, pixa eta kaka egin dezaten eta zikindu ez daitezen; bestela, ipurdia erre egingo baitzaie.
- ✓ Janzteko arropa alderantziz eman, nondik jantzi behar duen erakuste aldera.



Gaitasun sozio-emozionalak bizkortzeko jarduerak IV



- ✓ Arropa kentzen erakutsi.
- ✓ Itxigailuak edo horman jarritako zeloak jaisten erakutsi edo praketako kremaiera jaisten eta igotzen.
- ✓ Egunean arroparen bat gordearazi, arau gisa.
- ✓ Jaterakoan, ez presaka ibili (haurrak bakarrik jaten ikasi behar duenez, denbora behar du).

Gaitasun sozio-emozionalak bizkortzeko jarduerak V

- ✓ Haurraren ondoan eseri eta jaten eman, baina, aldi berean, bakarrik jaten utzi.
- ✓ Janariaren inguruko hizkuntza-ariaketak egiteko aprobetxatu.
- ✓ Kopuruari buruzko kontzeptuak sartu.
- ✓ Otorduen ondoren garbitzen erakutsi.



Gaitasun sozio-emozionalak bizkortzeko jarduerak VI

- ✓ Jan ondoren, hortzak garbitzen erakutsi (atzamarrarekin edo haurrentzako eskuila batekin).
- ✓ Erakutsi orrazten, kolonia botatzen, e.a.
- ✓ Bainatzerakoan, belakia eman bere gorputza garbi dezan.
- ✓ Azazkalak nola mozten dizkiogun erakutsi eta zergatik mozten ditugun azaldu.



AMAIERA

